

PAPERAREN ETA KARTOIAREN BILKETA SELEKTIBOKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIA  
BIDEZ KONTRATETAKO KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA.

**1. artikulua.- KONTRATUAREN AURREKARIAK ETA HELBURUA.**

Bermeon paperaren eta kartoiaren bilketa selektiboaren egoera, gaur egun, honeetan puntuetan laburbildu geinke:

- 1) 2013-2016 urteetan Bermeon papera-kartoiaren berreskuratze batez besteko indizea urtean **30,5 kilo/biztanlekoa** izan da. Bizkaikoa, ostera, 28,5 kilokoa izan da. Emaitzak ikusita, datozen lau urteetan urtero **520.000 kilo** hartuko dira erreferentziazko gitxienerako balio moduan.

2016: 507.950 kg

2015: 521.440 kg

2014: 531.590 kg

2013: 524.720 kg

- 2) Gaur egun 3,2 m<sup>3</sup>-ko kaleko kontainerren hornikuntza 57 alekoa da; hau da, 17.100 bizilaguneko udalerrri batean edukiontzi bat 305 biztanleko. Kontainerrak 48 lekutan dagoz jarrita, horreetatik 46 herri-gunean eta beste biak auzoetan: Artika (Infrisa) eta Agarre (Egoitz-alai erresidentzia). Hortik aparte 1000 litroko kontainer bat dago Tribis auzoan. Kontainer kopuru hori bardintsu mantentzea espero da epe erdira. Kontainerrok udalaren jabetzakoak dira eta erreserba modura, beste 2 unitate dagoz gordeta transferentziako udal erdigunean (Jose Done eraikuntza).
- 3) Udal bulegoetan eta ikastetxeetan, aldiz, egun 360 litroko kontainerren hornikuntza 23 alekoa da, 13 lekutan jarrita. Euren jabea batze zerbitzuaren enpresa esleipenduna da.

Baldintza-agiri honen helburua da Bermeoko Udalak udal mugartearen barruan jarrita dagozan bide publikoan zein udal bulego eta ikastetxeetako kontainerretara botatuko papera eta kartoiak erretiretako eta gero birziklatze lantegi batera eramateko zerbitzua kontratatea.



## **2.-. artikulua.- ZERBITZUAREN EDUKI OROKORRAK**

### **I. EGIN BEHARREKO ZERBITZUAK**

Egin beharreko zerbitzuak bi ataletan banatuta dagoz, nahitaezkoak eta borondatezkoak.

Jarraian zehazten diranak dira **NAHITAEZKO ZERBITZUAK**:

- Bide publikoan jarritako 57 kontainerretako papera eta kartoia jasotea eta garraiatzea.
- Udal bulegoetan eta ikastetxeetan jarritako 23 kontainerretako papera eta kartoia jasotea eta garraiatzea.
- 23 komertziotan (fruta dendak gehienbat) atez-ate kartoia jasotea eta martitzenetako azokatxoan sortutako kartoia ere.
- Lantzean behingo bilketak (hauteskundeak, etab.).

Nahitaezko horreen zerbitzuen multzoak osotuko dau Oinarrizko Eskaintzea, zeinari eskaintza tekniko eta ekonomiko bateratu bat jagokon.

Enpresa lehiatzaileei jagoke nahitaezko zerbitzuetako bakoitza beteteko sistemarik eragingarrienak proposatzea.

Lizitatzailleek hobari legez, **AUKERAKO BESTE ZERBITZU BATZUK** be eskaini leikiez, halan gura badabe, baina baldintza-agiri honetako zerbitzuakaz bat datozenak. Euren eretxiz udalarentzat interesekoak izan leitekezan zerbitzuak, hain zuzen be. Aukerako zerbitzuen artean, esate baterako, honeek sartu leitekez:

- Kaleko kontainerrak biltzeko egunak gehitzea; adibidez, bost egunetik seira (egunero, astelehenetik zapatara).
- Kaleko zerbitzurako 3200 litroko kontainer gehiago jartzea doan.
- Komertzioen atez-ateko zerbitzuan komertzio kopurua handitzea, edo kaleko zerbitzuan bilketa puntuak handitzea.



- Herritarrek eta dende eta bulegoek bilketa sistemak behar dan moduan erabili daiezan sentsibilizazio kanpainak egitea
- Beste proposamen batzuk

Eskaintza horreetako bakotzak memoriatxo tekniko eta ekonomiko bat euki behar dau.

Eskainitako aukerako zerbitzuetako bat, batzuk edo bat be ez esleitzeko eskubidea eukiko dau udalak, eta horrek ez deutse erreklamaziorik egiteko eskubiderik emongo lizitatzaileei.

## II. Papera eta kartoia bide publikoan JASOTEKO ETA GARRAIATZEKO zerbitzuaren deskripzioa.

Sortzaileek eurek aukeratutako eta bide publikoan dagozan kontainerretan banatutako paperaren eta kartoiaren bilketa selektiboa, espezifikoa eta ganerako hondakinetatik bereizitakoa da. Alboko karga sistemearen bidez jasoten da eta, gero, gordeta euki ostean zein ez, papera berreskuratzeko lantegi batera edo papera birzikletako beste batera (paper-fabrika) garraiatzen da.

Zerbitzua paper eta kartoi hondakinak sortzen dabezanentzat da, eta bilketarako kontainerretara bota behar dabez. Etxeetako hondakinak zein horreetan eremuetan dagozan ondasun eta zerbitzu sortzaileen jardueretakoak biltzen dira.

Kaleko kontainerrak udalarenak dira, 3,2 m<sup>3</sup>-koak, plastikozkoak, tapa urdindunak eta albotik zamatzekoak. Gaur egun **56 kontainer** dagoz eta esan daitegu zerbitzua, urteetako esperientziaz jada egonkortuta dagoela. Halanda be, egokitzapena eta mantenimentua dirala edo zerbitzua emoteko mailea hobetzeko, kopuru hori aleren baten handitu egin leiteke etorkizunera begira, baina, handitu ezkerro, sasoiz jakinarazoko deutso udalak enpresa esleipendunari, egokitzapena egin daian. Biltzeko lekuak zabaltzea, zabaldu ezkerro, kontratearen bitarteko materialak eta giza baliabideak proportzionalki handitzeko erabiliko da, baita urteko aurrekontua handitzeko be, une bakotxean indarrean dagozan banakako prezioen arabera. Kontainerren gaur egungo kokalekua 1. eranskinean zehazten da, eta eskumendun udal organoak aldatu egin ahal izango dauz, esleipendunagaz berba egin eta gero.



Orain arteko esperientzia kontuan hartuta, eta bilketea optimizetako, kontainerrak husteko maiztasuna **astean 5 biderrekoa** izango da kontainer danetarako. Hau da, astelehenetan, eguaztenetan, eguenetan, barikuetan eta zapatuetan. Auzoetan dagozan biak, Artikan (Infrisa) eta Agarren (Egoitz-alai erresidentzia) astero 3 aldiz hustuko dira. Beste guztiek astero bost bider. Horreetako egunetako baten bat jaieguna izango balitz, kontainerrak aurreko egunean edo hurrengoan hustuko dira, **eta beti eta edozein kasutan gorde beharko da asterako ezarritako maiztasuna.**

Ibilbide orri hori aldatu egin ahal izango da, baina jakinarazo egin beharko jako udaleko organo eskumendunari, eta aldaketa egiteko organo horren berariazko onarpena beharko da.

Husteko gitxieneko maiztasunak adierazotako kontainer danei eragingo deutse, hau da, momenturo bermatu behar da hondakinak hartzeko gaitasuna, **inoiz be ez daien ganezka egin.**

Era berean, kontainerra ganezka dagoalako edo erabiltzailearen ardurabakokeria dala-eta, kontainerren inguruetan itxitako papera-kartoa be batu beharko da.

Zerbitzuaren eragingarritasunik handiena lortzeko, esleipendunak **URTEKO EGUTEGI PROPOSAMENA** aurkeztu beharko dau, ezarritako zerbitzua zein egunetan egingo dan zehatz-mehatz adierazota eta, horrezaz ganera, egun berezietan (Gabonak, herriko jaiak, etab.) zerbitzua beteteko konpromisoa be hartuko dau. Egutegi hori urte bakotxaren hasieran finkatuko da, eta jagokon udal organoak onetsi beharko dau.

Noiz edo noiz, eta nahiz eta husteko ezarritako maiztasuna bete, kontainerren bat beteta edo betetear balego, udal zerbitzuek esleipendunari jakinarazo ostean, kontainerra ezarritako hurrengo zerbitzu egunean hustuko da.

Zerbitzua beteteko ordutegia udalerrriaren berezko ezaugarrietara egokitu beharko da: ibilgailu kopurua, herritarren jarduerara, azokak, etab. Oro har, auzokoei eragozpenik ez eragiteko, kontainerrak egunez hustuko dira, 7:30etatik 22:00etara bitartean, ahal dala goizetan, eta halan bajagoko, udalak ahalmena eukiko dau zerbitzua beteteko ordutegirik aproposena ezarteko.



Halanda be, kasu berezietan edo ez ohikoetan, udaleko zerbitzu teknikoek zenbait eremutarako ordutegia eta bilketa maiztasuna ezarri ahal izango dabe.

Hain zuzen be, Arana tar Sabinen Enparantzan (udaletxea dagoan plazea) eta Anbulategi ondoan dagozan kontainerrak (san juan portale) goizeko 7:30 eta 8:30 bitartean batuko dira, izan be, zailtasun handiak egoten dira bertara sartzeko edo sarritan kontainer alboan kotxeak aparkatuta egoten diralako.

Amaitzeko, hilero BILKETA TXOSTEN bat aurkeztu beharko da excel formatuan edo antzekoan. Bertan, hilero zerbitzua emon diran egunak agertuko dira eta egun bakotxean baturiko kiloak. Txosten bi egingo dira, bata kaleko zerbitzurako eta bestea atez-ateko zerbitzuetarako. Txosten horiek euskeraz aurkeztuko dira.



III IKASTETXEETAN ETA UDAL BULEGOETAN BATZEKO zerbitzuaren deskripzioa.

Esleipendunak, papera eta kartoia batzeko, gitxienez plastikozko kontainer bat (gurbil bikoia, urdina eta 360 litroko edukierakoa) ipini beharko dau honeetan lekuetan:

a) UDAL BULEGO ETA ZENTROETAN:

- Liburutegia - Turismo bulegoa (2 ale)
- Intxausti kaleko bulego teknikoak (2)
- Gizarte Ongizaterako Patronatua (1)
- Jose Antonio Egia Musika Eskola (1)
- Kultura eta Gizarte Etxea (2)

b) IKASTETXEAK

- Eleizalde Ikastola (4)
- I. Arocena Batxilergo institutua (4)
- San Frantzisko herri eskola (3)
- Benito Barrueta Institutua (1)
- Lanbide Hastapena (1)
- Nautika eskola (1)

Horietako bat, aparte, 1000 litrokoa da eta Tribis landa-gunean dago kokatuta.

Kontainerrak husteko gitxieneko maiztasuna **astean behingoa** izango da, adibidez martitzenetan edo barikuetan, eta edonola ere, beti udal bulego eta ikastetxeen oneritziagaz . Halanda be, enpresa esleipendunak, idatziz aurkeztutako proposamen arrazoitua eta justifikatua tarteko, udalak aldatu egin ahal izango dau leku batzuetako maiztasuna.

Ikastetxeetan, printzipioz, ez da bilketarik egin beharko ikasturtetik kanpora.

**Bilketa lekuak 11 dira, eta kontainer kopurua, osterara, 23koa.** Halanda be, egokitzapena eta mantenimentua dirala edo zerbitzua emoteko mailea hobetzeko, hasiera baten aurreikusita ez badago ere, kopuru hori handitu egin leteke etorkizunera begira. Baina haditu ezker, sasoiz



jakinarazoko deuto udalak enpresa esleipendunari, egokitzapena egin daian. Biltzeko lekuak zabaltzea, zabaldu ezker, kontratearen bitarteko materialak eta giza baliabideak proportzionalki handitzeko erabiliko da, baita urteko aurrekontua handitzeko be, une baktxean indarrean dagozan banakako prezioen arabera.

Kontainerren gaur egungo kokalekua eta kopurua 2. eranskinean zehazten dira, eta eskumendun udal organoak aldatu egin ahal izango dauz, esleipendunagaz berba egin eta gero.

Gero, esleipendunak hustu egingo dauz, eta hustutakoa birziklatzeko enpresa batera eroango dau.

Kaleko kontainerren kasuan legez, esleipendunak URTEKO EGUTEGI bat aurkeztu beharko dau eta, bertan, ezarritako zerbitzua zein egun zehaztetan egingo dan adierazoko dau.

Era berean, horreetako egunetako bat jaieguna izango balitz, kontainerrak aurreko egunean edo hurrengoan hustuko dira, eta **beti eta edozein kasutan gorde beharko da asterako ezarritako maiztasuna, ikasturtetik kanpo izan ezik ikastetxeen kasuan.**

Zerbitzua emoteko ordutegia, oro har, 8:00etatik 15:00etara bitartekoa izango da.

Edozelan be, zerbitzua hasi aurretik, kontainerrak daukiezan zentroen iradokizunak kontuan hartu beharko dira, hareen ezaugarriak kontuan hartzeko, zentroan zein lekutan eta zenbat ipini behar diran zehazteko, eta ordutegia finkatzeko. Holan, zerbitzua modu egokian antolatu ahal izango da, bai jasotzailearentzat, bai ikastetxearentzat.



**IV. DENDA BATZUETAN ETA MARTITZENETAKO AZOKATXOAN ATEZ-ATEKO BILKETA  
zerbitzuaren deskripzioa.**

2013. urtean, udalak atez-ateko bilketa zerbitzua eskaintzen hasi zen kartoi asko sortzen eben denda batzuei, gehienbat fruta dendak, udalerrian bildutako kartoi eta paper kopurua handitzeko asmoagaz. Gaur egun zerbitzu hau **24 establezimenduetan** emoten da, gehienak hirigunean eta gutxi batzuk Landabaso industrialdean.

Zerbitzu honetan parte hartu ahal izateko, udalak lehendabizi eskari bakoitza aztertu egin dau, ikusteko zerbitzu honetan sartzea bideragarria zan ala ez (sortutako kartoi kopurua eta maiztasuna, establezimenduaren kokapena, kaleko kontainerren hornidura inguruan, etab.). Eskaria ontzat hartu ondoren, zerbitzua emongo jakon dendak Atxikipen Fitxa bat bete eta sinatu behar dau, bere datuak emoteko eta konpromisoa hartzeko zerbitzuaren funtzionamendua beteko dauela.

Denda horreen gaur egungo kokalekua eta kopurua 3. eranskinean zehazten dira, eta eskumendun udal organoak aldatu egin ahal izango daz, esleipendunagaz berba egin eta gero. Zerbitzu honetatik kanpo tamaina ertain edo handiko zentro komertzialak (Eroski, DIA, BM, etab.) geratzen dira.

**Astero 3 bilketa** egingo dira. Hasiera baten, astelehenetan, martitzenean edo asteazkenetan eta ostiraletan, eguerdiko 14:30etatik aurrera. Dendek 14:00etatik aurrera kartoia ate aurrean utzi behar dute, kalea oztopatu gabe, ondo tolestuta eta beste hondakin batzuekin nahastu gabe.

Honez gain, zerbitzu honen barruan sartzen da martitzenetan antolatzen dan kale azokatxoan sortzen dan kartoia ere batzea. Azokatxo hau datorren martxoak 7tik aurrera, aurreikusten da Arana tar Sabin enparantzan (udaletxearen plazan) izango dala. Orain arte, Atalde kalean izaten zan.

Gero, esleipendunak eskuz bildutako kartoi guztia kamoi baten sartuko dau eta birziklitzeko enpresa batera eroango dau.

Kaleko kontainerren kasuan legez, esleipendunak URTEKO EGUTEGI bat aurkeztu beharko dau eta, bertan, ezarritako zerbitzua zein egun zehatzetan egingo dan adierazoko dau.





**V. LANTZEAN BEHINGO BILKETEN EDO BEREZIEN ETA ANTZEKO BESTE LAN BATZUEN zerbitzuaren deskripzioa.**

Halakotzat hartzen dira papera batzeko ohiko zirkuituetatik edota ordutegietatik kanpora egin beharreko bilketa danak, bildu beharreko materialen **izakereagaitik edo kopuruagaitik**, edo une jakin batean ohiko zerbitzua indartzeko behar izanagatik.

Atal honetan aurreikusten dira **lantzean behingo egoeretan edo egoera berezietan** leku batzuetan edo ikastetxeetan papera eta kartoia batzea eta garraiatzea; herritarren jarduera logikoari jagokona baino paper gehiago bildu dalako eta hondamenen edo antzekoen ondoriozko **egoera berezietan**.

Halatan, bilketa berezi horreen barruan sartuko da, urtero eta jagokon beste bider, honeen bilketa selektiboa:

- hauteskunde kanpainetan sobrautako materiala
- bulego ofizialetako lekualdatzeen edo artxibo ofizialen garbiketen ondoriozko papera edo kartoia.

Era berean, atal honetan enpresa esleipendunak egin beharreko **antzeko beste lan batzuk** be aurreikusten dira, besteak beste:

- \*Zerbitzuan igarritako edozein irregulartasunen barri emotea udaleko arduradunari (dana dalakoagaitik kontainerrak apurtu badira, etab.)
- \*Papera berreskuratzeagaz lotutako eta udaleko zerbitzu teknikoek agindutako antzeko beste behar batzuk.

**3. artikulua.- EXEKUZINOKO ARRETA**

Esleipendunak arretarik handiena euki beharko dau zerbitzuak beteterakoan, espaloiak eta galtzadak ez zikintzeko. Halanda ze, hondakinak manipuletako eta hareen zamaketa beharretarako isuritako material danak berehala jaso behar dabez, baita garraiatzerakoan isuritakoak be.

Kontainerren inguruan itxita dagoan papera eta kartoia be batzen saiatu beharko da esleipendunak.



Ibilgailuek bilketa beharrak arintzeko behar-beharrezkoak diran geldialdiak eta maniobrak baino ez dabez egingo, eta oinezkoen zein ganerako ibilgailuen joan-etorria ahalik eta gitxien eragotzita, eta behar diran segurtasun neurriak hartuta.

**4.-. artikulua.- BALIOZKO OBJEKTUAK.**

Kontainerren barruan edo kanpoan topauriko baliozko objektuen barri emon beharko deutse kontratistek udaleko zerbitzu teknikoei, objektu horien ugazabak dirala egiaztetan dabenei bueltau ahal izateko.

**5. artikulua.- GORABEHERETARA, EZUSTEKOETARA ETA ALDAKETETARA EGOKITZEA.**

Esleipenduna **une jakin batean** zerbitzuen izakereari, kopuruari, denporeari eta lekuari eragin leioen era guztietako gorabeheretara, ezustekoetara eta aldaketetara egokitu beharko da, baldin eta udalerrriaren jarduera dinamiko eta garapen logikoaren ondoriozkoak badira (bide azpiegituren eta uri ekipamenduaren aldaketak, bide publikoetako obrak, etxeak eregitea, ibilgailuen trafikoa, gizarte gertakizunak, etab.), eta horrek ez dau ezelango aldaketa ekonomikorik eragingo.

**6. artikulua.- HARTU-EMONETARAKO TELEFONOA.**

Irregularitasunen barri emoteko, esleipendunak hartu-emonetarako telefono bat eukiko dau, udaleko zerbitzu teknikoek zein edozein erabiltzailek gorabeheren barri emon ahal izateko. Telefono horrek erantzungailua eukiko dau, deien erregistroduna, lanalditik kanpora itxitako mezuak erregistrauta geratzeko.

**7. artikulua.- BILDUTAKO PAPERA ETA KARTOIA GORDETEA ETA BERRESKURATZEA.  
HORREEN AZKEN HELMUGA.**



**Jasotako papera eta kartoia esleipendunaren jaubetzakoak izango dira.**

Paper birziklatuaren prezioen garapena estatuan 2013-2016 (ASPAPEL), €/t

	2013	2014	2105	2016
1.11 Papel gráfico clasificado para destinar (kaleko kontainerrak)	96,33	80,50	84,42	97,58
1.04.01 Papel y cartón ondulado ordinario (beste zerbitzuak)	76,83	65,58	70,83	73,33

Idea bat hartzeko, 2016. urtean kaleko kontainerretan 472,82 tona batu ziren (%93a) eta beste zerbitzuen bidez 35,13 tona (%7a).

Esleipendunak, jasotako paper eta kartoi guztia papera berreskuratzeko edo birzikletako lantegira eroan arte, bere biltegi batera eroan dezake. Horrela balitz, ezarritako biltegia zein dan esan beharko jako udalari. Aurretiazko biltegitratzea onartuko dau udalak, baina bakarrik biltegitratze horrek bildutako materialaren aprobetxamentu integrala eragiten badau.

Berreskuratutako paperak eta kartoiak ezelan be ezingo dau euki azken helburu legez paper fabrika baten birzikletea ez dan beste helburu bat. Birzikleteaz ulertzen da jasotako paper hori lehengai legez aprobetxetea edo berrerabiltea paper-pastea lortzeko, gero jatorrizko produktua ekoizteko edo antzeko beste zelulosa produktu batzuk ekoizteko.

Esleipendunak, berreskuratzeko biltegiak eta paper fabrikak momenturo bermatu behar dabe bildutako materialean egon leitekezan datuen konfidentziasuna eta sekretua, eta zuhurtziaz jokatu beharko dabe.

## **8. artikulua.- HUELGEA EDO ENPRESA GATAZKA**

Esleipendunaren enpresan huelgarik edo enpresa gatazkarik baldin badago, Udalak edo eskumendun beste erakunderen batek agintzen deutsozan gitxieneko zerbitzuak onartu eta ezarri beharko dauz enpresek.



Gitxieneko zerbitzu horreek ez beteteagaitik edo gatazkeak luzerako joteagaitik, garbitasunari jagokonez, egoerea jasanezina bihurtuko balitz, Udalak behar diran neurriak hartuko dauz behar diran zerbitzuak ezarteko, harik eta lan normaltasuna berrezarten dan arte. Hartu beharreko neurri horreek danek eragindako gastuak esleipenduraren pentzura izango dira, legokezan erantzukizunei kalte egin barik.

#### **9. artikulua.- ZERBITZUKO ARAU-HAUSTEAK.**

Esleipenduna behartuta dago kontratua, baldintza-agirietan jasotakoa zorrotz Beteta, eta udalak esleitutako zerbitzuak hobeto beteteko emondako aginduak betetera.

Jarraian zehazten diran arau-hausteak kontratisteari lotutakotzat joko dira, eta, baldin balegoz, baita azpikontratistei lotutakotzat be.

#### **Arau-hauste OSO LARRIAK izango dira:**

1. Zerbitzuak beteten hasteko aurreikusitakoa baino 15 edo egun gehiago atzeratzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
2. Zerbitzua etetea sei (6) eta hamabost (15) egun artean, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
3. Enpresan huelgarik edo enpresa gatazkarik badago, udalak edo eskumendun beste erakunderen batek agintzen deutsozan gitxieneko zerbitzuak ez betetea, partzialki zein osorik.
4. Zerbitzu bat aldatzea arrazoitutako kausarik eta udalari aurretiaz jakinarazo barik.
5. Zerbitzuak oso txarto edo modu irregularrean betetea.
6. Berreskuratutako papera birzikletea ez dan beste zeozertarako eta udalaren baimen barik erabiltea.
7. Esleipenduna ez dan beste persona batzuek ustiatzea zerbitzuaren parte bat edo dana.



8. Ordenari, araubideari eta zerbitzuak beteteko moduari buruz udalak emoniko agindu ofizialak ez betetea, eta, oro har, zerbitzuok arautzen dabezan arauak ez betetea.
9. Esleipendunak edo haren beharginek erabiltzaileen ordainsariren edo kontraprestazinoren bat jasotea zerbitzuak emoteagaitik.
10. Laneko betebeharrak, Gizarte Segurantzazakoak eta laneko legediari buruzkoak ez betetea.
11. Ez ohiko edo preminazko bilketa bat eskatzen dauen egoera baten salaketea jaso edo barri izan ostean berehala ez esku-hartzea, edo sistemaz ez esku-hartzea 3.II artikulua aitutzen dauzan 24 orduen barruan.
12. Bildutako paper edota kartoi kopuruari buruzko edozein iruzur, baita merkatuko prezioei buruzko iruzurrak be.
13. Arau-hauste larriak barriz egitea. Arau-hauste larri bi egitea arau-hauste oso larri bat egitearen parekoa izango da.

**Arau-hauste LARRIAK izango dira:**

1. Zerbitzua bost egunez edo egun gitxiagoz etetea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
2. Esleipendunaren mendeko beharginen eta bizilagunen arteko intzidentek, bai begirune barik aritzeagaitik, bai zerbitzuak beteterakoan gabeziak jarduteagaitik.
3. Parteak eta antzemandako gabezien komunikazioak sasoiz ez aurkeztea, eta eskatutako informazioan egia ez esatea.
4. Enpresearen kudeaketeagaz lotutako dokumentazioa faltsutzea, batez be kontabilidatea.
5. Zerbitzuak beteteko behar diran segurtasun neurririk ez hartzea.
6. Udaleko zerbitzu teknikoek ikuskapena edo jagoletzea eragozteak edo oztopatzea.
7. Zerbitzuetarako bitarteko mekanikoen eta materialen kontserbatzino eta funtzionamentu egoera txarra.



8. Bildutako materialetan dagozan datu konfidentzialak argitaratzea eragiten duten zuhurtzia gabeziak, esleipendunaren mende dagozan beharginen edo papera berreskuratzeko edo birzikletako enpresearen zuhurtzia bakotasunagaitik izan bada.
9. Arau-hauste arinak barriz egitea. Arau-hauste arin bi egitea arau-hauste larri bat egitearen parekoa izango da.

Arau-hauste ARINAK izango dira:

Goian aurreikusi ez eta zelan edo halan baldintza-agiri honetan ezarritako baldintzen kalterako izan leitekezan ekintza guztiak, kalte larriak ez badira.

Berariaz aitatu ez dira arau-haustea aurrekoakaz batera sailkatuko dira analogiaz, zerbitzuari eragiten deusien neurrian.

Arau-hasteren baten kalifiketea, zerrendatu bakoak be bai, Bermeoko Udalaren eskumena izango da.

Zerbitzura lotutako beharginek, laneko kontuak dirala-eta, grebara jotzen badabe, esleipendunari ez jako zigorrik ezarriko kontratua partzialki ez beteteagaitik, udalaren ustez esleipendunaren itxikeria edo zabarkeria nabarmenagaitik diran kasuetan izan ezik.

#### **10. artikulua. ZIGORRAK ETA ZIGOR PROZEDUREA.**

Udalak honeek zigor ekonomikoak ipini ahal izango deusoz esleipendunari, aurretik espediente zabalta:

Arau-hauste OSO LARRIAGAITIK, mila eta bostehun eta hiru mila euro arteko isuna (1.500 eta 3.000 € artean).

Arau-hauste LARRIAGAITIK, seirehun eta mila eta bostehun euro arteko isuna (600 eta 1.500 € artean), arau-hauste larriak barriz egiteari jagokozan zigorren kalte barik.

Arau-hauste ARINAGAITIK, ohartarazpena edo ehun eta berrogeta hamar eta seirehun euro arteko isuna (150 eta 600 € artean),





arau-hauste arinak barriz egiteari jagokozan zigorren kalte barik.

Eragindako kalteak konpontzetik eta ezar daitekezan gatxen kalte-ordainetatik independenteak izango dira zigorrak.

Zigor Ahalmenaren Prozedurarako Araudia onartzen dauen abuztuaren 4ko 1348/93 Errege Dekretuak ezarten dauena izango da zigor prozedurea.



**I. ERANSKINA Kaleko kontainerren kokalekua**

	BILKETA PUNTUAK	EDUKIONTZIAK
1	Santamañe 13	1
2	Kasinoa, Lamera parkea	1
3	Arrantzaleen kofradi kalea (Sta Eufemia)	2
4	Portuzarra (entrada muelle Frantxua)	1
5	Askatasun bidea 3 (Bankoa)	1
6	Askatasun bidea 12	2
7	Askatasun bidea 24	1
8	Askatasun Bidea 37 (Eroski)	2
9	Ander Deuna 12	1
10	Artike auzoa (Infrisa)	1
11	Artike Bidea 23	1
12	Artike Bidea 1	1
13	Erreñe Zubi 15	1
14	Almike kalea-Gonzalo Nardiz enparantza	2
15	Adubidxe 19	1
16	Mikel Deuna 9 (rotonda)	1
17	Artieda tar Iñigo 4 (Lamera Txiki)	1
18	Zubiaur tar Kepa 28 (parada Bus)	1
19	Carretera Sollube (residencia-Bº Agarre)	2
20	Zubiaur tar Kepa 51	1
21	Martin Deuna (cuesta, frente Gure-Etxe)	1
22	Martin Deuna 4 (taller coches)	1
23	Martin Deuna 7	1
24	Dolariaga 21 (Eroski)	2
25	Dolariaga (BBVA)	1
26	Bizkaiko Jaurreria 20 (tanatorio Izaro)	1
27	Arresi (entrada a intxausti)	1
28	Arresi (frente cristalería Ormaetxea)	2
29	Arana tar Sabin Enparantza (Ayto.)	2
30	Arresi 22	1
31	Arresi (san Juan Portale)	2
32	Musika eskola	1
33	Tonpoi Bidea 5 (bar)	1
34	Talako Andra Mari 18 (parque Tala)	1
35	Benito Barrueta 4	1
36	Bizkai Buru 10	1
37	Bizkai Buru (cruce con Matxixako bidea)	1
38	Matxixako bidea (Sagrado Corazón)	1
39	Atalde 10	1
40	San Frantzisko Herri Eskola	1
41	Eleizalde ikastola	1
42	Baratz-Eder urbanizazioa	1
43	Atalde 25 (camino Polideportivo)	1
44	Aritzatxu Bidea (encima rotonda san martin)	1
45	Plaza Taraska (San Francisco)	1
46	Kurtzio, delante ermita	1
47	Txibitxiaga nº 6	1





48	Txibitxiaga nº 16	1
	EDUKIONTZIAK GUZTIRA	<b>57</b>

**II. ERANSKINA zentro ofizialetako eta ikastetxeetako kontainer TXIKIAK,**  
**360 l-koak**

Contenedores pequeños (360 L) en centros oficiales y escolares

		nº
1	Ayuntamiento nuevo: Intxausti, 2	2
2	Patronato de Bienestar Social: Areilza	1
3	Liburutegia-Turismo Bulegoa: parque Lamera	2
4	Institutoa: Matxitxako Bidea s/n	4
5	Ikastola Eleizalde: Arene auzoa, 6	4
6	Escuela pública san Frantzisko; Atalde s/n	3
7	Instituto Benito Barrueta: Atalde	1
8	Lanbide Hastapena: Atalde	1
9	Nautika eskola: Irakaskintza s/n	1
10	Jose Antonio Egia Musika Eskola: Irakaskintza s/n	1
11	Kultura eta Gizarte Etxea: Aurrekoetxea kalea	2
12	Tribis *contenedor de 1000 L	1

**23**



**III. ERANSKINA atez-ateko bilketa egiteko komertzioen zerrenda**

1	FRUTA DENDA TOBA	Teodoro Anasagasti 3
2	FRUTA DENDA <b>AMALUR</b>	Atalde 4
3	FRUTA ETA LORE DENDA MILA	Bizkaiko Jaurreria 15
4	SUPERMERKATUA ALIPROX	Arresi 21
5	FRUTA DENDA LAIA	Arresi 22
6	FRUTA ETA BARAZKIAK JON BILBAO	Arresi 42
7	RESIDENCIA SANCTI SPIRITUS	Tonpoi Bidea 1
8	FRUTA DENDA FATU	Aurrekoetxea 2
9	DENA 100tik GORA	Arana tar Sabin enp. 10
10	FRUTA DENDA VILLALBA	Nardiz tar Jon 1
11	SUPERMERKATUA LIDE	Nardiz tar Jon 6
12	FRUTA DENDA ITSASNE LEGARRETA	Aldatseta 6
13	FRUTA DENDA SERBI FRUTAK	Askatasun Bidea 5
14	OPARIEN DENDA USTEKABEAK (CHINO)	Askatasun Bidea 32
15	FRUTA DENDA EUSKADI	Askatasun Bidea 45
16	FRUTA DENDA <b>INES</b>	Askatasun Bidea 53
17	UDAL AZOKA	Zubiaur tar Kepa 26
18	JOSTAILU ETA MOZORRO DENDA	Intxausti 21
19	OPARIEN DENDA (BAZAR CHINO)	Zubiaur ter Kepa 8
20	DENETARIK-TODO A 100	Askatasun Bidea 33
21	MATERIALES DE CONSTRUCCIÓN URRESTI	Pol. Ind. Landabaso, Pab 6-7
22	ERREMENTERI AUTOAK	Pol. Ind. Landabaso, Pab 7
23	PEVASA (bakarrik abisua emoten dauanean)	Pol. Ind. Landabaso s/n
24	RESIDENCIA EGOITZ-ALAI	Zubiaur tar Kepa 74

